

# Bernat Etxeparen bizitza-garaiaz albiste gehiago eta Linguae Vasconum Primitiae (1545)-ren berrirakurketa

PATRI URQUIZU

UNED

[purkizu@euskalnet.net](mailto:purkizu@euskalnet.net)

*Recibido: Marzo de 2012. Aceptado: junio de 2012*

**Resumen:** En este artículo se presenta el documento inédito hallado por el profesor Patricio Urquiza entre los pergaminos del Archivo de la Colegiata de Orreaga-Roncesvalles, en que el obispo de Bayona Bertrand de Lehet nombra el 11 de enero de 1511 a Bernat Etxepare sacerdote de San-Miguel el Viejo (Eiheralarre) y de Zaro, parroquias cercanas a San Juan de Pie del Puerto (Baja Navarra), donde más tarde fue nombrado Vicario General. Así también se estudia el renacimiento bordelés. En éste participaron los humanistas vascos nativos de Sara, Juan de Ibarrola (+ Burdeos 1537) y Bernardo de Lehet (+ Burdeos 1562), que mantuvieron relaciones y correspondencia con humanistas como Andreas Goveanus, Robert Bréton «Britannus» profesor del Collège de Guyenne, donde estudió Montaigne, Jean de Boyssoné autor de cartas y poemas en latín, francés y occitano y Eustorg de Beaulieu, de la escuela marotiana, introductor del músico Clement Janequin en el círculo de Lehet. Contexto en el que se inserta la primera obra impresa en euskara.

**Palabras Clave:** Humanismo. Renacimiento Vasco. Rober Bréton, Jean de Boyssoné, Eustorg de Beaulieu, Jean Ibarrola, Bernard Lehet, Bernat Etxepare.

**Laburpena:** Patri Urkizuk Orreagako kolegio-elizako pergaminoen artean aurkitu dokumentua aurkezten du artikuluak. Agiri argitaragabe horretan, 1511ko urtarrilaren 11an Bertrand de Lehet Baionako apezpikuak, Bernat Etxepare Behe Nafarroako Donibane Garazitik gertuko Eiheralarre eta Zaroko herrietako apeza izendatu zuen, eta jakina den bezala Garazin Bikario Nagusi izatera iritsiko zen. Era berean ere Bordeleko Pizkundea eta haren parte har-tzaileak ikertzen ditu, hala nola, Juan de Ibarrola (+ Bordele 1537) eta Bernardo de Lehet (+ Bordele 1562) saratarrak. Azken hauek, Montaigneren ikastetxea izan zen Collège de Guyenneko Robert Bréton «Britannus» irakas-learekin eta okzitanoz, frantseset et latinez, eskutitz eta olerkiak idazten zituen Jean de Boyssoné-rekin harremanak izan zutuzten. Leheden taldean zirkulukoak izan ziren ere Clement Janequin eta Eustrog de Beaulieu musikariak, azken hau Marot- en eskolako poeta ere. Horixe dugu *Linguae Vasconum*

*Primitiae* (Bordele 1545) euskaraz inprimaturiko lehenbiziko idazlanaren testuingurua.

**Gako hitzak:** Humanismoa. Euskal Errenazimendua. Rober Bréton, Jean de Boyssoné, Eustorg de Beaulieu, Jean Ibarrola, Bernard Lehét, Bernat Etxepare.

## 1. SARRERA OROKORRA

Europako mendebaldean XV. eta XVI. mendean sorturiko kultur mugimendu zabalari eta ideia humanisten zabalkundeari deitzen ohi zaio Errenazimendua. Italia dute kontsideratzen historialariek humanismoaren sehaska, zeina ematen den bereziki XIV. mendetik aitzina. Estatu italikoak hiri handien (Firenze, Milano, Venecia...) merkatal eta industria aberastasunen inguruan zeuden eratuak eta hauen kulturaren ondorio dira bertan gertatutako loratze artistikoak. Burgesia noblezia militarraren lekua hartzen joanen da baratxe eta boterea bereganatzan, bizimodu berri bat moldatuz, indibidualismoari eta izpiritukritikoari leku emanez, ondare klasikoa berreskuratuz, nondik datorkion izena, eta herri hizkuntzetan liburuak moldiztegiratuz.

Dante Alighieri (Firenze, c. 1265 – Rávena, 1321) izanen da lehenetarikoa arduratzen herriaren hizkuntzaz. Beste lanen artean *De volgari eloquentia* idatzi zuen latinez 1304. urte inguruan hizkuntza arruntez, hauen eboluzioaz eta kontratueta erabili beharraz parte hartzaleek ezagutu ahal zitzaten sinatzen zutena. Bere gaztetako eta amodiozko poemak *Vita nuova* izenpean jaso zituen, eta garaiko kulturaren sintesia *Divina Comedia*-n italieraz eman zuen, obra hau kontsideratua izan delarik Italiako Literatura eta Unibertsaleko maisu-liburua bezala.

Francesco Petrarka (Arezzo, 1304 – Padua, 1374) dugu humanisten parada. Hauek hirietan heziketa metodo berria irakasten duten irakasleak dira, zeina testu nagusien analisian datzan. Irakaskintza hau imitazio sortzailearen medioz ederra errepikatzen eta lortzen ahalegintzen da. Obra anitz idatzi zuen bai latinez, bai italieraz, bai hitz lauz eta bai bertsotan. Hauen artean ditugu: *Canzoniere*, Laurari eskaini poema bilduma, petrarkismo poesia mota zabalduko duena Europan zehar, *De viris illustribus*, antzinako gizon eredugarrien bizitzak, *De remediis utriusque fortunae* (1366) elkarrizketa moralak, eta beste.

Lorenzo Valla (Erroma, 1407-Napoli, 1457) izanen da lehena latinaren eboluzioa aztertzen eta kritika filologikoaren oinarriak ezartzen, frogatz, adibidez, *De falso credita et ementita Constantini donatione* lanean Constantinoren emaitza aipatzen duen testua, ezin zitekeela honen garaian idatzia izan, eta Erdi Aroan sorturiko testu faltsu bat zela, aitasainduen botere denboralarik oinarri juridikoa ematearen.

Marsilio Ficino (Figline, 1433-Firenze, 1499) da beste humanista Platonen *Oturuntza* komentatzerakoan amodiozko poesiagintzan eragin handia izanen duena. Platon urratsez-urrats gorputz ederrenganako amodiotik arima ederren-

ganakora igarotzen da eta edertasunaren ideia bera Jainkoarenarekin bat egingo da.

Italian bezala, Frantzian eta Spainian ugari izan ziren Amodioaz Elkarrizketak, zeinetan Ficinoren pentsaera arrunta den bilakatzen. Neoplatonismo florentinoak, beraz, Errenazimenduko joera ezberdinak elikatuko ditu, zeinak bai toaz Lefevre d'Etaples-en ebangelismo mistikotik Jean Calvin-ek sakramentuez ematen duen interpretazio sinbolikoraino (Weber 1971:375-425).

Inprintaren sorrerak Alemanian eta zehazki Magunziako hirian Gutenberg-en eskutik 1450. urte inguruan ideien mundua erabat aldatuko du, eskuzkribuetarik liburuaren arlora iraganen baita, pentsamenduaren zabalkundean pausu handi bat emanez. Jakina da Spainian jada 1470rako bazela moldiztegi bat Sevillan alemaniar impresoreek ekarrita eta berehala hedatu zirela Barcelona, Segovia, Salamanca, Valencia, Zaragoza eta garaiko beste hiri garrantzitsuenetan, 1490. urte inguruan Iruñean kokatu zelarik Arnao Guillén de Brocar editorea.

XVI. mendera iristen garenerako liburuaren historiagile batzuen arabera hogei miloi liburu zabalduak ziren Europan. *Incunables* deitu liburu hauetarik % 77 inguru latinez idatziak dira, gero dato %7 italierazkoak, % 5 edo 6 alemanezkoak, % 4 edo 5 frantsesezkoak, % 1 baino gehixeago flamenderazkoak, eta beste hizkuntzetakoak aski gutxiago. Eta gaiak kontutan hartuz geroz esan behar da % 45 osatzen zutela erlijiozko testuek, ondoren zetozelarik % 30 inguru literaturakoak, gaiak klasikoak, erdi arokoak edo modernoak izan zitezkeelarik, eskubideez egin liburuak % 10etik pasatzen ziren, eta zientzia alorrekoak beste %10 batera iristen ziren. (FEBVRE & MARTIN 1971)

Inprimeria, Erreformaren zabalkundean eginkizun handia jokatu zuenak, funtsezkoa izanen da ere hizkuntzen ortografia, morfologia eta sintaxiaren finkatze bidean. Adibidez, Antonio de Nebrija (Lebrija, 1441 - Alcalá de Henares, 1522) humanistak idatzitako *Grammatica Castellana*-k (1492) eragin berezia izanen du gaztelaniaren hedakuntzan, eta honetaz baliatuz Aragoeko inprimitzaileek ordurarte ziren obretan ageri ziren lokalismoak baztertu zitzuzten. Finkatze ortografikoan ere parte handia ukan zuen Alemanian, bere aldetik Luteroren hizkuntzak, eta honen Bibliak gramatikagileei balio izan zien beren obretarako, aleman literarioa kodifikatzea lortuz XVI. mende bukaeran.

Eta Frantzian gramatikalariek ere ugari izanen dira, estiloaz eta hizkuntzaz idatzi zuten humanistak ez direlarik faltako. Ezagunena Du Bellay izango da, bere *Défense et Illustration de la langue française* idaztiarekin (1549) Plíade deitu mugimenduko buru, bertan latinaren aurrean frantsesaren alde agertzen zelarik. Dena den, Arroxela erori eta gero, italianoek, flamendarrek, alemanek eta frantsesek Louis XIII.aren ohoretan latinezko laudorioak idatzi eta argitaratu dituzte, Malherbe delarik salbuespen.

Alemaniako humanismoak, bere aldetik, poliki-poliki Luteroren erreformarako bidea ideki zuen. Irakasle italiarrak Europako hiri nagusitara zabaldu ziren eta latinezko poesiaren graziak eta imitatzeko moldea, artea eta antzea irakatsiko dute. Erasmo, 1495ean Teologia ikasle zena Frantzian izanen da entzuleen artean. Horrela Bizantziotik zetorren Georges Hermoine Espartakoak grekera irakatsiko die besteen artean Guillaume Budé-ri, Desiderio Eras-

mori eta Jacques Lefèvre Eaples-ekoari. Azken hau ( $\pm$  Nerac 1537) San Pablo-ren Gutunak ikertzen saiatu zen, Ebangeloak itzultzen (1522) eta Frantzian Jean Calvin aitzin erreformatzaile buruetarik izanen da.

Desiderio Erasmo (Erroterdam, 1469- Basilea, 1536) holandesak jada 1500. urterako argitaratu zuen *Adagia* izendatu zuen liburua, greziar eta latindar autoreengandik jasotako errefrauak eta egiten dituen komentarioekin Grezia eta Erromako eguneroko bizitzaz burutua. Garai hartan herrialde hauen kulturez ja-betzeko libururik egokienetakotzat jo zitekeen. Lehen edizioak 800 bat errefrau komentatzen bazituen edizio berrietaan kopurua haunditzen joan zen eta azkenetako bazituen 3400 bildu eta iruzkinduak. Bestalde, *Enchiridon Militiis Christiani* liburuan (1504) erlijio intimoago baten alde ageri zaigu, bilutsagoa eta pu-roago zitekeena, sainduei eskainitako zeremoniarik gabe, sakramenduei ematen zitzaien garrantzia tipituz eta ebangelioko moralarena handituz. *Monachatus non est pietas*, formula bortitzak, alegia, fraidetza ez da pietatea, ospetsu bilakatu bide zen. Ebangilioetan aipatzen zen amodioak boteretsuen urguiluaren kontra egitea suposatzen zuen, zapalketa ororen eta gerraren kondenatzea. Kristautsunaren morala gizartean hedatzeko heziketa dela mediorik garrantzizkoena uste du Erasmok. Pertsonen heziketa, baina baita ere eta batipat printzearena. Hau dela eta idatziko du *Institutio Principis Christiani* (1516), gero Karlos V izanen zenarentzat. Urte honetan ere argitaratu zuen Basilean sei eskuzkribu konparatuz *Novum Testamentum*, edo Testamentu Berria grekeraz eta latinez.

Martin Lutero (Eisleben, 1483-1546) fraide agustindarra, gizonaren salbazioarekin kezkatuta, izanen da erreforma deitua izan denaren burua. Liburutto batzuek idatzi zituen 1520an Elizak diru ordez ematen zituen Bulen eta Induljentziengintzak kontra. Eta Erasmoren Testamentu Berria sei urte beranduago alemanera itzuli zuen eta honen bertsio alemanetik ingelesera pasatu zuen William Tyndale-k (1526). Biblia osoa plazaratu zuelarik 1534ean, Luteroren ikuspuntua eta hizkuntza eredu bilakatu zen Alemania osoan eta bertako hizkeren batasuna abiatu zuen. Halako arrakastarekin gainera, ezen mende laurden batean (1522-46) bere Biblia itzulpenen 430 edizio ezberdin moldiztegiratu ziren.

Halaber, Luterok Erasmoren bersioarekiko adierazi zuen miresmenak itzulpen ugari sorrarazi zituen Europako herrialdeetako hizkuntzetara. Aipatu liburuttoak, bai latinez eta bai erromantzez idatziak zirenak Espanian Pasaiako eta Bilboko portutik sartu ziren, eta 1521eko apirilaren 7an, hots, urte bat aitasaindu bilakatu aitzin, Gaztelako Inkisidore Jeneralak, Adriano Utretch-koak, denak errearazi zituen, eta era berean Ayala Lizentziatuak, Nafarroako Inkisidoreak 1523an agindu bat jaso zuen, non esaten zitzaison Gipuzkoara joan zedin informatzera aurki zitzakeen liburu luteranez eta hauen jabeez.

Eliza katolikoa ez zegoen prest erantzunik gabe uztera erreformisten kritikak eta asaldamenduak, eta honela Berquin, Erasmo eta Luteroren itzultzalea, hasieran Frantzisko Iaren babesia eduki zuen arren eta jarraian izan balu, Lutero frantsesa zitekeena Théodore Bezaren hitzetan, Parlamentuak errearazi egin zuen Place Grève-n 1529an, Frantziako lehen martir protestantean bilakatu zelarik. Halaber erreformaren alde agertu ziren artesau, liburu saltzaile xume eta jende apal anitz sutara bidalia izan zen.

Jean Calvin (Noyon, 1509 – Genève, 1564) frantsesak batu egin zituen Kristoren dotrina Erasmoren arabera Luteroren fedezko salbamenduko dotrina-rekin. Bere garaian frantses protestantismoan bi joera zeuden. Bat Gérard Roussel-ek zuzendua eta Margaritaren Nérac-eko gortean gailen zena, bilatzen zuena erdibide bat meza katolikoa eta luteranoaren artean. Eta bestea, Guillaume Faurel-ek animatua, eta Zurich-eko erreformatzaile zen Zwinglioren eraginpean zegoena, zeina sakramentuak kentzearen alde, eta liturgia, Eliza Katolikoa eta Aitasainduaren kontra zegoen. Joera honek, antza, liluratu zuen Calvin, eta idazki bortitz batzuk plazaratuz lehenik Alsatzian, gero Italian eta azkenik Gi-nebran errefuxiatu zen, bertan argitaratuz bere liburu gehienak.

Gérard Roussel (Vaquerie, 1500 – Olorue, 1550), dominikoa eta Margarita Nafarroako erreginaren aitorlea, honek izendatuta 1536az geroz Olorueko apezpiku izan zen, Calvin-en iritziaren kontra. Behin, 1549an Mauleko elizan predikatzen ari zela Indulgenciez eta sainduez, Pierre de Maytiekin, geroago Olorueko apezpiku izanen zen Arnaud de Maytieren aitak, haizkora batez pulpitoa hautsi zuen eta erorketaren ondorioz hil zen.

1548an erret-agiri batek debekatu egin zuen Genèven inprimaturiko liburuak oro, berdin zion zein, sar zitezen Frantzian eta ondorioz sarrera klandestinoki egiten zen *kolporterrak* medio, hots, feriaz-feria eta hiriz-hiri zebiltzan liburu saltzaile errarien, kolportarien bitartez.

Calvin-en dotrinak bereizi egiten ditu Ebangilioan oinarrituriko portaera eta iraultza politikoarena. Konsideratzen du boteretsuak bere leukan ezarriak izan direla Jainkoaren borondatez eta obedientzia zor zaiela, erlijioak kontzientziaz agintzen duenaren aurka doanean ezik. Amore ematen zuten izpirtiuak sortuko ditu kalbinismoak eta hain modu berekikoan non Calvin-ek Miguel Servet atxilotuarazi egin zuen eta prozesu baten ondoren sutara kondenatuko 1553ko urriaren 28an.

Ginebrako «errepublika teokratikoa» bilakatu zen eliza erreformatuko apaintzat eskolatze eta teologia berria ikasteko hiria, eta bertan izan ziren Euskal Herrietako zenbait apaiz, hala nola, Jean Decheberry, Donibane Lohizuneko, *le petit basque* euskaldun tipia deitua (8-V-1559), Xohütako Sanz de Tartas (21-VIII-1559), Bertrand de Sainte Engrace (1559), Jean di Barsone Sarakoa (8-XI-1583), eta Henri Sponde mauletarra (1584-1585) besteen artean.

Antoine de Bourbon (1518-1562) eta honen emazte Joana Albretekoa (1518-1572), Angouleme-ko Margaritaren alaba, 1560an protestantismora konbertitu ziren. Joanak Calvin-i bere lurrardeetan ebangelio berria zabaltzeko predikatzai-leak eskatuko dizkio, eta 1571ean urtean Arroxelako Sinodoan parte hartzen du, eta bertan, Calvin-en *Confessione*a aintzakotzat hartzen, Lurraldea, idolatria, superstizioa eta kulto faltsu guztiatarik aske utzi nahi baitzuen, Ebangilio Sainduaren kontrakoak zirenez. Urte honetan itzuli ziren Calvin-en zenbait liburu titu- pi eta Testamentu Berria euskarara (Salaberri, 2012).

Halere protestantismoak ez zuen Lapurdin jarraitzaile anitz eduki, eta Felipe II-ak, Espainako erregeak 1565eko Pio V.aren bula baten bitartez eta protestantismoaren aitzakiaz lortu zituen Baionako apezpikuaren menpe ziren Nafarroako Bortz Hirietako lurraldeak eta Gipuzkoako zatiak bereganatzea.

## 2. NAFARROAKO ERRESUMA ERRENAZIMENDU GARAIAN

Boterea eta lurren ondasunak lortzeko gatazkak etengabeak ohi ziren eta ez ziren sekulan amaitzen. Halaxe, XV. menderdian (1442-1461) beamontesen eta agramontesen arteko borrokak eman ziren. Lehenak, beamontesak alegia, Bianaiko Karlos IVaren aldekoak ziren eta Luis de Beaumontek zuzentzen zituen. Hau Leringo kondea zen eta Nafarroako Doña Juana, Karlos IIIa Noblearen alaba bastartarekin ezkondurik zegoen. Madrilen hil zen 1464ean, Nafarroako Errege zenaren Juan IIaren kronikan traidore eta errebeldetzat salatua izan zelarik Don Enrikeren basallo egin zelako. Eta bestaldetik, agramontesak ageri dira, Espainiako erregearen aldekoak, Azkoiengo Pedroren agintepuan borrokatu zutenak. Azkenean Nafarroako erresuma Evreux-tarren etxetik Albret–arrengana pasatu zen, Katalina Foix-ekoa Jean Albretekoarekin (1483-1530) ezkondu zeanan.

George Desdevises du Désert irakasleak badu bere tesian (DESDEVISES DU DÉZERT 1889: 452-455) kapitulu bat Don Karlos, Vianako printzearen bibliotekaz mintzo dena, bera, besteak beste, artezale, historiagile eta poeta ere izan baitzen (eta Ausias March-en adiskide handia), bertako 101 liburu zerenda emanet, eta non liburu gehienak (52) latinez izan arren badiren beste zebait grekeraz, frantsesez, italieraz, gaztelaniaz eta katalanez. Egile greoko-latinoez aparte badira ere bertan italiako errenazimenduaren ordezkarriak, hala nola, Dante, Leonardo d'Arezzo eta Petrarka.

Euskal Herriean inprimategia, esan bezala, Iruñean 1492an hasten da Arnao Guillén de Brocar-en eskutik. Honen lehen edizioa latinez idatzitako *Manuale...* batzuek dira<sup>1</sup>, zeinari jarraitzen dioten E. Masparrauten *Regulae*-ak, J. de Kethan-en *Epílogo en medicina y cirugía* (1495)..., eta 1500ean Guido de Colonna-ren *Crónica Troyana* delakoak Pero Lopez de Ayala eginiko itzulpenez. Hogeita bederazi lan ezberdin plazaratu zituen Brocar inpresoreak, baina gerrek, antza denez, urrunarazi zuten Brocar Logroño aldera, eta ez zen beste inprimagilerik izan Nafarroan Miguel de Eguia 1546an Lizarran kokatu zen arte.

Ez da Iruñean, dirudienez euskal libururik argitaratuko XVI. mende osoan, eta soilik euskaraz eta erdarazko Sancho de Elsoren *Doctrina Christiana...* 1561ean, galdua dena, eta antza Esteban Garibay mondragoetarrak bildutako *Re-*

<sup>1</sup> Hona XV. mendeko inkunableen zerrenda: *Manuale secundum consuetudinem ecclesie Pamplonensis* (1490), ondoren E. de Masparrautaren *Regulae* (1492) batzuek doaz, J. de Kethan-en *Epílogo en medicina y cirugía* (1495), *Commentum seu Scriptum super libros politicorum Aristotelis* (1496), *Commentum seu Scriptum super libros economice* (1496), P. de Castrovol-en *Formalitates breves* (ca. 1496), San Buenaventuraren *Dieta Salutis* (1497). 1499ko urtea izango da produkziorik handiena duena: N. de Blony-ren *Tractatus sacerdotalis de Sacramentis de que dignis officiis*, G. de Peraltaren *Enseñamiento de religiosos* eta A. de Fuente de ñaren *Título virginal de nuestra señora en romance*. P. de Castrovol-en *Tractatus vel si maius expositio in simbolum quincumque vult*, A. Hispanus-en *Confessionale, Interrogationes confessorum* eta *Tractatus qui stella clericorum inscribitur* hala nola *Breviarum secundum consuetudinem ecclesie et diocesis Pamplonensis renovatum in regulis*. Azken inkunable ezagunak B. Magnoren *Institutiones de moribus* (ca. 1500), *Missale Pamplonense* (ca. 1500), eta G. de Columnaren *La Crónica Troyana* (ca. 1500) ditugu. Hauda, gehienak latinez idatziak eta erlijioa gai dutenak.

*frances y Sentencias...* 1596an, hots, bi testu elebidun moldiztegiratuko dira. Bat, esan bezala, galdua, eta bestea, ale osatu gabean aurkitua Van Eys-ek Darmstadt-eko liburutegian.

Frantziako errege zen François Lehenak *Ordonnance de Villers-Cotterêts* delako agindua sinatzen du 1539an, jarraiki aurreko zenbait erregeren joerari, aginduotan azpimarratzen delarik legeen, eskubidearen agirien hizkuntza zein behar duen izan aurrerantzean, hau da, *en langage maternel françois*, frantsesa izango dela<sup>2</sup>.

Urte berean bestalde Juan de Rena (Venecia,-Toledo 1539), erretore, prot-notario, canonigo, bikario, bula saltziale eta fondo biltzaile Nafarroako gerlaren gastuak ordaintzearren, bere nagusien, –Fernando Katolikoa eta Karlos Kinto–, zerbitzari zintzo, Iruñeako apezpikua hil zenean, katedraleko kanonikoek eskatu zioten Karlos Kinto enperadoreari memorial batean beraien arteko bat hau ta zezan hutsik gelditu kargurako, beste arrazoien artean, *saben la lengua vascongada*, hots, euskara bazekitelako, eta horrela bertakoa izanik aukeratua obeditua izanen zela zuzenago eta errazago, zeren eta herrialdeak beste nazioen artean maite zuen bereziki bere natura eta hizkuntza (JIMENO JURIO 1997). Ez zuten izan, ordea, batere arrakastarik kanonigoek, memoriala itzuli egin zi tzaien, eta Isabel Katolikoa deituarti Nebrijak esandako hura Gramatikaren aitzinsolasean, *porque siempre la lengua fue compañera del imperio*, erromatarrei buruz bazegokion ere, oraingoan Gaztelari zegokiarik, betetzen ari zen eta gaztelania derrigorrez botere kargutan inposatzen joan zen.

Eta bide honetatik era berean XVI. mende bukaera Iruñeako *Constituciones synodales* deituetan (1584) agintzen eta debekatzen da eskribauak edo eliza notariekin edo notari laikoek, elizako auzietan konprenitzen ez duten hizkuntzan edo latinez fedetik lekukotzarik ematea, hiru dukaten eta sei hilabetez ofizioaren uztearen zigorpean.

Halaber Erret-Kontseiluko Ordenantzeta (1594), agintzen da erromantzea ez dakitenen lekukotzak fidelki eta proprietatez gaztelaniatuak eman daitezten, eta *poniendo las mismas palabras formales que dixeren los bascongados en bascuence*, hots, euskaldunen hitz beraz jasoz deusik erantsi gabe. Arau hauak direla eta kontserbatu izan dira Iruñeako Eliz-barrutiko artxiboetan, hauzietako paperen artean garaian ohiko izanen ziren poesia satirikoaren mostrak, eta zenbait familia gutun euskaraz.

Flandesetik Plantin-en moldiztegian inprimaturiko hainbat eta hainbat liburu iristen ziren Bilbaora, non 1577an Matías Mares-ek kokatu zuen bere inprimategia, baina Pedro Cole de Ibarrak 1596an plazaratuko du soilik beste *Doc-*

<sup>2</sup> Art. 111.- *De prononcer et expedier tous actes en langage françois Et pour ce que telles choses sont souventes foys advenues sur l'intelligence des motz latins contenuez es dictz arretz. Nous voulons que doresenavant tous arretz ensemble toutes aultres procedeurees, soient de nous cours souveraines ou aultres subalternes et inferieures, soient de registres, enquestes, contractz, commissions, sentences, testamens et aultres quelzconques actes et exploictz de justice ou qui en dependent, soient prononcez, enregistrez et delivrez aux parties en langage maternel françois et non aultrement.*

*trina...-txo bat euskaraz eta gaztelaniaz.* Hau Juan Pérez de Betolaza doktoreak itzuli zuen 1558an Franzisko del Ganto delako batek Medina del Campon argitaratu Dotrinatik. Benetan uzta txit urria kontutan harturik zenbat eta zenbat es-kribau eta letra-gizon zen etorki euskaldunekoa, konparatz beroiek gaztelaniaz edo latinez argitaratutakoekin.

Donostian ez da izanen inprentarik XVII. mendea aurreratu arte eta Baionan, Lapurdiko hiriburuan, halaber ez zen 1642 arte kokatu, eta, beraz, ez da harritzeko Ipar Euskal Herriko idazleek euskaraz moldiztegiratu behar izan zutenean XVI. mendean beren liburuak Bordelera 1545ean edo eta Arroxelara 1571ean joan izana.

### 3. BERNAT ETXEPARE (SARASKETA, BEHE-NAFARROA, C. 1486-1559 ?)

Euskaraz plazaratu lehen liburua, jakina den bezala, Beñat Etxepare apaizak idatzi zuen eta Bordelen moldiztegiratu François Morpain inprimatzaileak 1545ean. *Erregeren advocatu videzco eta nobleari virtute eta hon guciez complituyari bere iaun eta iabe Bernard Leheteri Bernard eche parecoac ....eskainia da ale bakarrean kontserbatu zaigun liburutto hau.* Beraz, badaiteke esan ohi den bezala Lehetek ordaindua izatea edizioa.

Dakigunez Bernard Lehet (Sara - Bordele 1562) Sarako Lehetetaren leinurukoa zen Akitaniako Tolosan ikasia (1514), 1516an *Lecteur* (irakasle) izan zela bertako Unibertsitatean, erregeren abokatu Guyenne-n (1524-29), eta erregeren abokatu jenerala Bordeleko Parlamentuan (1529-60). Antonie de Guillot chekin espasatura, Bordelen bertan azken hatsa eman zuen 1562an.

Honen etxearen izan zen irakasle Clement Marot-en eskolako zen Eustorg de Beaulieu idazle eta musikaria (Urkizu 1999: 107-114) zeinak laudoriozko poema bat eskaini zion: *à scientifique & très-prudent Seigneur Monsieur Maistre de Lahet*. Beaulieu, Jannequin, Cornier du Pré eta beste zenbaitek osatzen zuten Bordeleko talde musikazale, humanista eta errenacentista, Erasmo eta Maroten eragina ukan zutenak. Halaber izan zituen harremanak Andréas Gouveanus<sup>3</sup>, Guyenne-ko Kolejioan zuzendari izan zenarekin, Rober Breton «Britannus» bertako irakasle humanistarekin<sup>4</sup>, zeinak Jean Ibarrolarekin<sup>5</sup> ere ukan zituen gutun tratuak.

<sup>3</sup> André de Gouvéa (1497-1548), portugesa, Parisen bere anaiarekin ikasi ondoren, Bordeleko Kolejioa zuzentzeke ekarri zuten, bertan 1534tik 1547ra egon zelarik, eta ondoren Coimbrako Unibertsitatera joan zen. *Schola Aquitanica* argitaratu zuen (S. Millanges, 1583).

<sup>4</sup> «Rob. Brit. Bernardo Lahetio. S.D.», *Roberti Britanni attrebatus Orationes quatuor*. Tolosae, apud Nicolaum Vieillardum, 1536. Robert BRITANNUS (Breton) (Arras c. 1500-1551). Bordelen College de Guyenne-n irakasle, garaiko humanistekin gutun anitz trukatu zituen. Liburu anitzengiak egilea bai bertsotan bai eta hitz lauz : *De parsimonia seu frugalitate*, Simonem Collineum 1532; *Roberti Britanni attrebatus Orationes quatuor*. Tolosae, apud Nicolaum Vieillardum 1536 ; *Agriculturae encomium...* apud C. Wechelum, 1539 ; *Roberti Britanni epistolaram Libri II*. Parisiis, 1540 ; *Metodus institendorum puerorum ex Quintiliano...* Paris 1547...

<sup>5</sup> «Rob. Brit. Ioanni Dibarrola. S.D.; idem. *Epistolarum..., f. 57».*

Halaberetsu Tolosan irakasle izan zen Jean de Boyssoné<sup>6</sup> humanistak ukantzen zituen harremanak Bernard Leheterenkin, Tolosako liburutegian dagoen eskuzkribuan ikus daitekeen eran. Joanes Ibarrola, Bernard Lehete, eta Bernat Etxepareko, ditugu XVI. mendeko hiru euskaldun beste zenbaiten artean, zeinen lan humanisten frogak Bazas-en, Tolosan eta Bordelen zehar utzi zizki-guten.

Joanes Ibarrola (Sara-Bordele 1537), apaiza, Bordelen kalonje Saint-André elizan, kontseilari sartu zen Bordeleko Parlamentuan 1518an, eta kargu hau 19 urtez bete zuen eta Bordelen hil zen 1537ko abenduaren 11an. Kalonje bezala deitua izan zen Guyenne-ko Estatuetako Batzarrera 1520ko otsailaren 7an, *Les Coutumes de Bordeaux* idaztearren. Halaber Zuberoakoa erredaktatu zuen urte bereko urriaren 7an Errege kontseilari bezala Bordeleko Parlamentuan eta komisari: (*La Coutume de la Soule*, 1520). *Doctor utriusque juris*, 1521ean Unibertsitateko errektore, Bazas-en plazaraturiko lehen liburuaren egilea da, zeinen eskuzkribua eta ale bakarra Sainte-Genevièveko liburutegian dauden<sup>7</sup>. Antonio Gouveanus irakasleak, hau da Andréas-en anaiak epigrama bat eskeiniazion<sup>8</sup>.

Ernest Gaullier historialariak esaten digu gainera garaiko humanistekin izan zituzten harremanez aparte bai Jehan d' Ybarrola, bai Delahet (sic) Guyenko Kolejioko fundatzaileak izateaz aparte landu zituztela letrak latinez:

<sup>6</sup> «Io. À Boyssone , Bernardo Lahetio, Patrono Regio. S.» [c. 1533]. *Johannis de Boyssone antecessoris Tolosani et aliorum epistolae mutuae* (BM Toulouse, MS 834). Jean de BOYSSONÉ, (Castres c. 1500-Chambéry, 1559), Tolosan ikasle, doktore in utriusque jure (zibila eta kanonikoan) eta 1532an kondenatua iritzi erlijiosoengatik, publikoki bere erroreez abjuratu ondoren Italiara joan zen (Errroma, Bolonia, Venezia eta Padova). Grenoblen irakasle egon ondoren itzultzen da Tolosara eta bertan irakasle (1533) izanen da Robert Britannus-ekin batera. Berriro Tolosa utzi beharrean aurkitzen da eta kontseilari kargua lortzen du Chambéry-ko parlamentuan 1539an. Idatzi zituen Gutunen artean aurki daiteke Bernard Leheteri idatzia. Poemak latinez, frantses eta okzitaneraz ere idatzi zituen. Hona Tolosako liburutegiko eskuzkribuak: *Johannis de Boyssoné antecessoris Tolosani et aliorum epistolae mutuae*. (BM,Toulouse, MS 834) ; *Johannis a Boyssone Jurisconsulti Tolosani Carmina* (BM Toulouse, MS 835) ; *La première centurie des dixains de maistre Jehan de Boyssoné regent à Tholose* (BM, Toulouse MS 836) .

<sup>7</sup> *Opus quod Baptista Salvatoris nuncupatur in suum ordinem et debitam formam redactum suadentibus dominis canonicis eta capitulo insignis ecclesie Basalensis, cum rubricis ac fideli emendation tum marginali allegationum quotatione et aliorum nuper accessione perfectum. Impr. Vasati per Claudium Garnier, anno Domini MCCCCXXX* (Bibl. Ste-Geneviève, OEXV 290(2) Res.).

<sup>8</sup> D.M. Barollae senatoris burdigalensis  
In quo certarunt Frotuna, Scientia, Virtus  
Barollae exiguis contegit ossa lapis.  
Illa tamen, memori si quid modo fidimus aevo,  
Casurum nullo tempore nomen habent.  
Si quaeris, tumulo quid non condantur edodem:  
Exiguo a tumulo non potuere capi.

(Antonii Gouveani *Epigrammata libri duo : ad mortalitatem* . Lyon 1539)

Au Parlement, les présidents François de Belcier<sup>9</sup>, Jehan d Ybarrola, Sauvat de Pomiers<sup>10</sup> et l avocat général Delahet dont nous avons cité les noms comme fondateurs du Collège de Guyenne, n étaient pas seuls à cultiver les lettres : Guillaume de Lur<sup>11</sup>, auquel Britannus dédia ses poésies, Arnaud de Ferron<sup>12</sup>, le savant commentateur, qui préparait alors son livre *De rebus gestis gallorum*, et Briand de Vallé<sup>13</sup>, l ami de Rabelais jouissaient déjà d une certaine célébrité. (Gaullier 1884:132)

Historialari honek<sup>14</sup> esaten digunez, Delahet delakoa, hau da, gure Bernard Lehet euskara oso ongi menderatzen zuen eta euskal literaturaz arduratzan zen, eta latinezko poemak ere idatzi omen zituen garaiko beste parlamentari bo-deles anitzek bezala.

#### 4. BERTRAND LEHETEK BERNAT ETXEPARERI , 1511-KO EKAINA-REN 11-N LATINEZ IDATZI GUTUNA, NON ZARO ETA EIHERALARRREKO ERRETORE IZENDATZEN DUEN.

Orreagako Artxiboko 455. Pergaminoa

#### TRANSKRIPZIOA

(1) **Bertrandus** , miseratione divina episcopus baionensis, dilecto nostro domino **Bernardo Dechepare** presbitero, diocesis nostre oriundo, salutem in domino sempiternam.

Tuis exigentibus meritis, quibus apud nos multiplici / (2) commendaris testimonio, inducimus ut tibi reddamus ad gratiam liberales. Hinc est quod ad presentis vaccantibus de jure et facto ecclesiis parochialibus **Sancti Martini de Çaro et Sancti Vincenti de Sancto Michaele Vetere** / (3) adiudicem unitis per mortem naturalem seu obitum domini **Johannis de Lessaque** presbiteri ultimi et immediati earumdem ecclesiarum rector et possessor, quarumquidem ecclesiarum putando totiens quotiens vaccare / (4) disposuimus ad rectitudem patrem dominum dominum priorem de **Roncidevallibus** solario vestro et instituimus ad nos auctoritate ordinaria pertinet et espectat.

Et ad quasquidem ecclesias adiudicem unitas modo premisso / (5) vacantes fuisti coram nobis per venerabilem virum dominum **Johannem de Apatt**

<sup>9</sup> François Belcier, 1519an izendatu zuten Parlamentuko buru.

<sup>10</sup> Sauvat de Pomiers, Estienne de La Boetieren adiskidea, zeinek bere Poemmatua, liburuan distiko bat eskaini zion.

<sup>11</sup> Guillaume de Lur de Longa, 1528az gerotzik Parlamentuan bertso ziridunak Antonio Go-vearekin elkarri idazten zizkioten, hark ateo gisa salatuz eta honek, marranotzat joz, alegia judu.

<sup>12</sup> Arnaud de Ferron (1515-1563) Scaliger-en adiskidea, eta beste lanen artean, *De rebus gestis Gallorum* (1534), eta *Commentaires sur la Coutume de Bordeaux-en* egilea.

<sup>13</sup> Brian de Vallée, Rabelais-en adiskidea, errege kontseilaria Parlamentuan eta Guyenne-ko Kolejioan Teologia klasea ezarri zuena ilabeteroko lehen igandean emateko, bada ezpada.

<sup>14</sup> Delahet [...] il correspondait avec Robert Britannus et s occupait de recherches sur la littérature et la langue basque, qu il possédait à fond. (GAULLIER opus cit., orr.117).

presbiterum et rectorem de **Buçunarritz** tamque procuratorem Reverendis patris et domini domini **Ferdinandi de Egues** prioris monasterii / (6) seu hospitalis qualis beate **Marie de Roncidevallibus** ordinis sancti augustini earumdem ecclesiarum vestri patronis prout de dicta procuratione promptam fecit fedem mediante publico instrumento per magistrum / (7) **Sanctum Michaelm de Berrioçar**, ecclesiam diocesis pampilonensis, notavimus auctoritatibus aplicanda et regia in regno **navarre** publicum factum recento infra juris terminis presentata et per nos admissis et scriptis / (8) quantus de jure te adiucendus et recipiendus ea propter premissorum meritorum tuorum intuitu volentes te favore prosequi gracio ad predictas parrochiales ecclesias adjunctus unitas modo permisso / (9) vaccantes tenendas, regendas et gubernandas cum omnibus juribus debeniis et pertinentiis suis vinealis auctoritate ordinaria instituimus et easdem tibi oferimus et de eisdem te investimus et in / (10) possessione earumdem et ponemus et inducimus, quorum de jure possumus et debemus per oppositionem<sup>15</sup> birreti nostri in capite tuo.

Jurasti eum in manibus nostris, quod nobis et successoribus nostris canonice / (11) intrantibus obediens eris et fidelis mandataque nostra et officiariorum nostrorum juxta posse adimplebis, et ad sinodum vocatus venies, quando eam contingerit celebrari, bona quae dictarum ecclesiarum / (12) parochiale adsumires vinearum non alienabis, sed si quae alienata vel illicite distracta invenieris, ad ius et proprietatem ipsarum revocabis, et juxta posse reduces.

In justo mandantes omnibus / (13) et singulis capellanis pobris curatis et non curatis notariis publicis, per diocesim nostram ubilibet constitutis super hoc requisitis et eorum quilibet insolidum et sub pena excommunicationis committentem / (14) quantus te vel procuratorem tuum ad hoc legitime constitutum aut deputatum in realem, actualem et corporalem possessionem predictarum ecclesiarum parochialium juriumque et pertinentium. / (15) earumdem inducant seu inducat judicium quod defendant seu defendat amoto ab eis quilibet illicito detentore quem nos etiam tenore praesentium amovemus contradictores et rebelles, si qui sint, / (16) quod non credimus auctoritate ordinaria predicta per censuram ecclasiasticam viriliter compescendo.

Super quibus et ea tangentibus plenavit continue vires nostras. In quorum omnium et singulorum / (17) fidem et testimonium has nostras presentes litteras per notarium nostrum infrascriptum fieri fecimus et sigilli nostri vicariati apensione muniri.

Datum Baione in aula nostra episcopali / (18) die duodecima mensis junii et anno millesimo quinquagesimo undecimo, presentibus ibidem Bertrandus de Lehet donavit verendus de publicis habitantibus Baione testibus ad / (19) premissa vocatis et rogatis.

Domandato

Presbitero De Sala /De Bidart

soy muy afmo

&&& Notarius... 1511

<sup>15</sup> *Oppositionem* (sic), agian *impositionem* beharko luke.

## ITZULPENA

**Bertrand**, Baionako apezpiku jainkoaren miserikordiaz gure jaun apaiz **Bernardo Detxepare** maiteari, etorkiz gure eliza-barrutiko denari, betiko osasuna jainkoa baitan.

Kontutan harturik jaso ditudan lekukotasunak zure meritu anitzak goraipatuz erabakitzentz dugu beroiek eskertzea liberalki. Beraz, egun libre daudelarik es-kubide osoz Zaroko San Martin eta Eiheralarreko San Bizente parrokietako elizak, erabakitzentz dugu batera ematea, zeren eta **Johanes de Lesaka** azken apai-za hilik gertatu baita heriotze naturalaz, eta bertako erretore eta jabe, pentsatzuz zenbat hanbat eliza hauetarik libre direla, eta zuzentzen garela Orreagako jaunarenengana, lurraldeko jaun baita eta gure aginte ordinarioari dagokiona.

Eta aipatu elizak batera modu baimenduan ematen dizkizut, gure aurrean hutsik gelditu baitira, ohoragarri den jaun **Johanes de Appat**, Buzunarizko presbitero eta erretore hala nola prokuradore guztiz ohoragarri den **Ferdinando de Egues** jaunaren, monastegiko priorearen edo beata María Orreagakoaren ospitaleko, san Agustinen ordenakoa eta zuen eleizetako patroia, gaiak eskatzen duen era azkarrean zinatuta agiri publikoan, San Migel Berriozarreko maisuak, Iruñeako diozesako elizakoa, agintariek betebeharrezkotzat kontsideratua, eta Nafarroako erresuman publiko egina duela gutti, eta legearen arabera aurkeztua eta guk onartua. Zeinak eskubide osoz ematen dizkizugun har ditzazun zuen merituen kontsiderazioa eduki nahiz, lagunduz faborez graziozki. aipatu parrokietako elizak modu onartuan batuak, hutsik direla, jaso, zuzendu eta gobernatu ditzazun dituzten on eta ondasun guztiekin eta beroien jaun ezartzen zaitugu gure aginte arruntaz, eta erabakitzentz, legez ahal baitugu eta behar den eran ezarriz gure birreteea zure buru gainean.

Zin egin zenuen gure eskuetan, gu eta kanonikoki sartuko diren gure ondorenkoak obedituko dituzula eta fidel izanen, eta gure mandatuak eta gure ofizinalakoak gertutik beteko dituzula, eta sinodora deitua izatean etorriko zarela, hau zelebratzea gerta dadinean, eta inoiz ez dituzula salduko zure eleiza parrokietako ondasunak, eta aurkituko bazenitu ilizitoki izan direla lapurtuak edo kenduak, itzuliko dizkiezula beren jabeei, berriro justuki emanen.

Aginduz justuki kapellauak oro eta bakoitza, pobreak, zainduak eta zaindu-gabeak, notario publikoz, gure eliza-barrutiko edonon, honen gainean errekitistoak ezarririk eta norbait ez baletor bat beroiekin exkomunikazio zigorpean geldituko litzateke, baldin eta zu edo zure prokuradorea, legez honetarako eraikia edo zeuk izendatua benetazko eta eguneko eta gorputzezko jabe aipatu parrokietako elizetan legez eta bertako ondasunetan, norbaitek sortuko balu judiziorik, zeinak bereizita izanen diren urrunera, baldin ilizitoki bereganatuko balitzutze, zeina urrunarazten dugun ere memento honetatik kontrakoak eta errebeldeak, balin balitz, zeren uste dugu gure gorago aipatu aginte arruntaz eleizaren zentsuraz bortizki zigortuz.

Hauen gainean eta dagozkienetan gure indarrak erne izanen dira konstanteki. Eta horretarako hemen daude nire oraingo letra hauek bakoitzari eta denei

fede eta lekukotasun emanez, zeinak eginarazi dizkiogun behean zinatzen duen gure notariari eta gure bikaritzaren zigiluaz neuriaz erabakitzetan dugu.

Baionan gure artzaezpikutegiko gelan, ekainaren hamabian eta mila bos-tehun eta hamaikagarren urtean, bertan presente direlarik Baionako biztanleak le-kuko gisa hona etortzeko deituak Bertrandus de Lehet ohoragarriak eman du.

[Sinadurak]

## KOMENTARIOA

Aurelia Arkotxari dedikatua

BERNAT ETXEPARE euskal lehen liburua plazaratu zuenaren bizitzaz al-biste oso gutxi dauzkagu, beraxeek *LINGuae VASCONUM PRIMITIAE per Dominum Bernardum Dechepare Rectorem Sancti Michaelis veteris* portadan dioenaz (Etxepare 1545), hots, Eiheralarreko erretore izan zela, eta *Mossen Bernat Echaparere[n] cantuya-tik ondorioztatu dezakegunaz aparte*. Kanta honetan zioenaren arabera (*Mossen Bernat, iaquin vahu gauça nola ginен zen / Bearnora gabetarik egon ahal inçanden*) Biarnon preso izan zen, ez dakigu ordea, noiz eta zenbat denboraz. Javier de Ibarra dioskunez, *por motivo de ser beau-montés, fue llamado a Pau por el Rey (Enrique II, sin duda), fue condenado y que sufrió un largo cautiverio* (Ibarra 1951: 96-98).

Halere José María de Huarte-k argitaratu bi ageriri esker<sup>16</sup> (Huarte 1926: 246-248), badakigu 1518an Gonzalo Pizarro kapitainaren aurrean lekuko izan

<sup>16</sup> Hona lehen agiria:

*E despues de lo susodicho en la villa de San Juan de Pie del Puerto veynte e syete dias del dicho mes de marzo e año susodicho (de 1518), el dicho Capitán Gonçalo Piçarro rescibió juramento en forma devida de drecho de Bernar de Chaparre Rector de San Miguel el qual syendo preguntado por tenor de la dicha provisyon dixo que deste caso no sabe mas de quanto al tiempo que esta villa de San Juan estuvo cercada por el Rey don Juan que puede aver dos años visto al dicho don Juan de Orbara estar en San Miguel ques junto a la villa de San Juan con gente de armas e otra gente de guerra que allí estaba en deservicio del Rey nuestro Señor pero que no sabe sy el dicho don Juan tenia allí alguna gente mas de quanto de allí le vio yr hacia las montañas del Burguete e Val Descua e despues le vio otra vez con la dicha gente en San Miguel e se fue con ella al tiempo que la dicha gente fue huyendo del exercito del Rey nuestro Señor e que deste caso no sabe ni ha oydo otra cosa e firmolo de su nombre. Dechapare.* («Información recibida en Burguete y en San Juan de Pie del Puerto por el capitán Gonzalo Pizarro y el emissario Pedro de Feria con provisión del Virrey, duque de Nájera a consecuencia de una petición elevada al Rey por el lic<sup>o</sup> don Juan de Orbara, canónigo de Pamplona», Archivo de Navarra, P.S., 2<sup>a</sup> serie, leg 15, carp.27, 1518);

Eta hona bigarren agiria:

*+ Bastida mi agoazil: Lo que abeys de dezir e inffumar de mi parte al Vicario General del Señor Obispo de Bayona, es lo siguiente:*

*Que el Obispo de Vayona ultimo qui fue a rogarla y por muchas importunaciones que lo hicieron los jurados de la villa y tierra de San Johan, a causa de la mala ministracion de la justicia y dissoluciones de los ecclesiasticos y otras cosas non debidas que se hazian en tiempo de don Pedro de Mendicoaga exequitaba el Vicario Generalado de San Johan, me scribió tubiesse por bien*

zela Juan de Orbararen aferean<sup>17</sup>, eta Micer Juan Renak, 1520an Nafarroako arazoa antolatzeko Cesarino kardinalak izendaturiko veneziarrak, esku ziola Baionako apezpiku zen Bertrand de Leheteri izenda zezan Beñat Etxepare Garaziko Bikario, *considerando la avilidat sufficiēcia y letras y otras virtudes y buena fama de Mossen Bernart de Chapare Rector de Sant Miguel...*, alegia, kontutan hartuz zituen merituak: fama ona, letren ezagutza, hainbat birtute eta beste, Pedro de Mendikoagaren ordez.

*que el hiziesse mutaçion en el dicho Vicariado por lo que convenía al descargo de su conçiença y buena ministracion de la justicia.*

*Y que assi el dicho Obispo consíderando la avilidat sufficiēcia y letras y otras virtudes y buena fama de Mossen Bernart de Chapare Rector de Sant Miguel proveyó a él del dicho Vicariado general de Sant Johan, lo quoal yo tuve por bien por ser el dicho Mossen Bernart muy abil para el exerceçio del dicho officio y scribi y mandé a los de la dicha villa y a los otros del Obispado de Bayona que obedesçiesen y cumpliesen lo que el dicho Obispo mandaba pues hera en servicio de Dios y para la buena ministracion de la justicia.*

*Y que despues de muerto el dicho Obispo visto que el dicho Mossen Bernart exerceitaba bien el dicho officio, yo scribí al Capítulo de la Yglesia Cathederal de Vayona que no hiziesen mutaçion en el dicho officio ni quitassen aquel al dicho Mossen Bernart, lo qual assi se hizo.*

*Y que agora paresce ser an informado a la Magestad del Rey nuestro Señor en nombre de la villa de Sant Johan, deziendo que la dicha villa tiene privilegio que el Vicario General que ha de ser en Sant Johan a de ser hijo natural y residente de la dicha villa y otras cosas, lo qual es contrario a la verdat porque no tiene la dicha villa tal privilegio y quando lo tuviessen mostrandolo a mi yo ternía forma como se les goarde y cumpla quando mas que el dicho Mossen Vernart viba a media legoa de Sant Johan y sus audiencias tiene en Sant Johan.*

*Y que el dicho Mossen Vernart ha seydo y es muy buen servidor de Su Magestad y que yo informaré a Su Magestad de su perssona y virtudes como se aya descargo de la carta que su Magestad ha scripto al Señor Obispo.*

*Y si os dixiere el Vicario General de Vayona que la clerecía le suplica que quite del officio al dicho Mossen Vernart, vos le dezid que no es la clerezia en general sino algunos particulares a quien el ha corregido y traydo de mal y desonesto vivir al bueno, y porque les ha bedado los juegos y otras disposiciones lo quoal se consentia en tiempo de don Pedro de Mendicoaga.*

*Y assí le rogat de mis partes que no aga mutaçion en el dicho officio de Vicario General, mas antes le dé nuevo titulo al dicho Mossen Mernart, que en ello servirá a Dios, y a mi hará singular complazimiento y descargará a su conçiença.*

*Y que en las cosas que tocaron al Señor Obispo siendo requerido por él yo lo haré y mandaré con mucha voluntad como lo verá por obras, y cobrad respuesta del.*

*Y si por caso no quisiere hazer esto que le ruego, le dexid que no se dará lugar a otra cosa ni es cosa que cumple al servicio de Su Magestad que otro sea Vicario General de Sant Johan sino el dicho Mossen Bernart, ni se consentirá que en el dicho officio ni en totro alguno en este Reyno se pongan personas sino que sean acceptas a servicio de su Magestad. Esto ultimo le direys quando mas no pudieredes hazer, y sea bien dicho de manera que conozca que a otra cosa no se dará lugar.*

(Instrucciones reservadas dadas al alguacil Bastida acerca de cuanto en nombre de S.M. debia manifestar al vicario general del Obispado de Bayona respecto a la confirmación del título de vicario general de San Juan de Pie del Puerto hecho a favor de Mosen Bernat Dechapare, rector de San Miguel y suscesor en el expresado cargo de don Pedro de Mendicoaga («Tratado de la Instrucción que levo Bastida sobre el vicario general lado de Sant Juan», Archivo citado. Ibidem, carpeta 31, S.A.).

<sup>17</sup> Juan de Orbara, lizenziatuak, Miguel de Jaso eta Juan de Jaso, San Frantzisko Xabierren anaiekin batera, hala nola Juan de Agerre Etxalarkoa, Biktor Maulekoa eta beste zenbait gudarirekin Amaiurren errege legitimoak defenditu zituen, hots, Henri IIa, eta azkenean gora-behera anitzen ondoren Urdazubikori priore izatea lortu zuen (1522-1550).

Agiri honek esplika dezake nahiko argi Etxepareraren garai hartako preson-degitatzea arazo eta kontu politiko benetazko gisara eta ez moralaren ondoriozkoa edo irudimenezkoa, batzuek konsideratu ohi duten bezala.

Jakin ere badakigu Jacques Colombies-ek 1533an Akitaniako Tolosan plazaratu *Statuta synodalia Baionensis diocesis...* delakoaren idazkuntzan besteen artean parte hartu zuela maisu jakintsu bezala, *Deputati fuerunt a toto clero discreti et scientifici viri magistri [...] Ex ea parte que est in regno Navarre: Dominicus Donciondo, juris licenciatus, in dicto regno generalis vicarius, eta Bertrandus de Chaparre<sup>18</sup>, rector Sancti Michaelis veteris.*

Baionako apezpikutegian Etienne Ponchier (1508-1552) buru zelarik hamar eliz-gizon adituuen artean aukitzten zen, bada, Beñat Etxepare, besteak zirelarik: Johanes de Lenda eta Johanes de Mondaco Baionako katedraleko kalonjeak, biak legeetan batxilerrak; Estebe de Sanctis, St. Esprit-eko kalonjea; Martin Darkie, Uztaritzekoa; Johanes de Haranburu San Estebeko erretora; Petrus Dibusti, Bonlokeko komendatore eta Garroko San Martingo erretore; Johanes de Jerobi Errenteriakoa, eta Michael de Ambulodi Oiartzungoa, azken bi hauek Hondarribiako artxipezpikutegikoak (Dubarat 1892:66-67).

Ponchier aurreko apezpikuarekin ere agian izanen zuen Etxeparek harremannik, alegia, 24tik 32ra Baionako apezpiku izan zen Jean IV de Bellay (+ Errroma 1560) eta kardinal izatera iritsi zen humanistarekin, zeinak izan baitzituen halaber Guillaume Budé, François Rabelais, Étienne Dolet eta beste hainbatekin traturik, beti letra gizonak zituelarik lagundu. Hauek bultzaturik idatzi eta hasiko ote zituen harremanak bere mezenas, Bernard de Leheteren euskal lehen liburu editatzeko Beñat Etxeparek? Etienne Poncher-ek bultzatu zuen *Statuta* delako hauek erresuma ezberdinatan zegoelako zatituta eliza-barrutia eta orden zer-bait ezartzearen, *propter linguarum varietatem et morum diversitatem*, hots, ohitura eta hizkuntzen ezberdintasunagatik. Esaten da ere, *Pronunciabunt singulis diebus dominicis alta et intelligibili voce orationem dominicam, videlicet, Pater Noster, cum salutatione angeliza Ave Maria, articulos fidei et aliquando, ad minus semel mente decem precepta Decalogii et nonnunquam verbis maternis si eis videatur expedire.* Alegia, Aita gurea, Ave Maria, fedeko artikuluak eta hamar manamentuak noiz behinka esan daitezkeela ama hizkuntzan, hots, euskaraz, gaztelaniaz edo gaskoinez. Halaber, beste gauza askoren artean debekatzen zaie apaizei behin baino gehiagotan *ludi theatrales*, hots, teatroan parte hartzea eta *lascivas et obscenas cantinelas*, kanta lizunak kantatzea.

Baguenen oraino beste dokumentu bat Nafarroako Eliza arazoetako Artxibo Generalean aurkitua eta Julio de Urquijok argitaratua<sup>19</sup>, non ez argitu arren deu-

<sup>18</sup> Nahasi egin da editorea Bertrandus ezarriz Bernardus-en ordez.

<sup>19</sup> «In dei nomine amen. Sea magnificiente y publico a quantos esta carta de Cession transporte veran et oyran en la villa de Sant Juan de pie del puerto reyno de navarra obispado de bajona a xiiii dias del mes de marzo de mil quinientos y cincuenta y nuebe contando de la navidad de nuestro Señor Jesu Cristo [...] testigos que presentes se hallaron maestre bernard de echapare y don ramon de arozteg y los dichos de aquerreta y sosziondo y lezcarraga y dela landa se signaron a una con mi el dicho notario y los dichos testigos y me direon poder [...] martin de aroztegui notario». (Urquijo 1907: 369-381.).

sik Etxepareren kartzeleratzeaz, agertzen zaigun 1559ko martxoaren 14ean Donibane Garazin lekuko gisara, eta beraz, honek esan nahiko luke urte horretan oraindik bizirik zegoela.

Artikulu honetan ematen digu ere Ziburutik idatzitako Jaurgainen gutun bat non esaten den aurkitu duela honek agiri bat Uhart Etxeko artxiboetan, non esaten den espreski, *Noble Bernard, seigneur d'Etchepare de Sarasquette, père ou aïeul de Jean fut présent, le 5 août 1505, au contrat de mariage de noble Tristan d'Ahaxe, seigneur des salles d'Ibarbeitï et d'Ascarat, avec Marie d'Uhart...* Alegia, Bernard Etxepare izan zela presente ezkontza kontratu batean 1505eko abuztuaren 5ean. Jaurgaineak suposatzen du Bernard hau (gure idazlea?) Jean-en aita edo aitona zitekeela. Eta zergatik ez.

Gilberte Reicher Euskal Herriaz eta Bernat Etxeparez arduratu irakasleak honakoa zioen duela menderdi pasatxo (Reicher 1957: 33-49)

Comme terrain d'investigation, restait encore Roncevaux, car toute la plaine de Saint-Michel, dont Bernard Dechepare a été Recteur, appartenait au Prieur de l'abbaye de Roncevaux. Les richesses de Roncevaux n'ont jamais été inventoriées à fond ; de ce côté le chemin reste libre au sujet de Bernard. Peut-être y a-t-il là quelque secret qui reverra le jour.

Alegia, Orreaga zitekeela ikerketa gune lehen idazlearen bizitzaz urratsak aurkitzekotan, zeren Eiheralarreko erretore zelarik, hau Orreagako priorearen aginteplean baitzen, agian dokumenturik ager zitekeela bertan, baina inoiz ez zirela sakonki katalogatuak izan bertako paper eta pergaminok. Egoera hau, ordea, konpondurik urte zenbait geroago, Fermín Miranda García & Eloísa Ramírez Vaquero jaun-andreen 1997an argitaratutako lanari esker ohartu nintzen bertan honelaxe dagoela katalogatuta aurkezten dugun lana: *Abadías, Fajo 07, 16, 1511, Título de la rectoría de Caro y San Miguel el Viejo. Pergamino 455.*

Reicher-ek eta bestek diotenari jarraiki ahalegindu ginen Orreagako artxiboko katalogoak zioena ikertzera joaten eta gero hemen ageri diren milaka agiri zaharren artean hautatzena gutxi gora behera gure lehen idazlearen bizitzari zegozkiokenak. Don Emilio Linzoain liburuzain atseginak esku zabalez ireki zigun artxiboa eta begi zabalik ikusi genuen 1511ko ekainaren 12an zinatu gutxean, Bertrand de Lehet-ek izendatzen duela *Bernardo Dechepare presbítero* (sic) Zaro eta Eiheralarre herrixketako erretore.

Pergaminoko lehen hitza **Bertrandus** da. Eta hau, ezaguna den bezala, Bertrand de Lehet dugu, Saran jaioa (Biarritz Lassus 1993:179-211), Donibane Lohizunen apaiz izandakoa eta azkenik Baionako apezpiku 1504tik 1519ra. 1510ean aitasantuak kondenatu zuen Jean de Ganayk zuzendu Tours-eko kontzilioan parte hartu zuelako. Izurriteaz hil zen Basusarrin 1519ko abuztuaren 5ean Mongai izeneko etxearen, hobia Baionako katedralean daukalarik.

Berrikitan Marc Fardet, Rochefort-eko Marinako Zerbitzu Historikoan kontserbatzaile denak, agiri bat plazaratu zigun, tamalez erreferentzia handirik gabe, gurea baino urte bat lehenagokoa gutxi gora behera, non Bertrand de

Lehet apezpiak Halsuko parroquia sortzen zuen Larresorotik bereiziz, Errobiko uholdeak eta ondorengo arazoak zirela kontutan hartuz (Fardet 2001:81-92).

Bigarren pertsona izena **Bernardo Dechepare** dugu lehen lerroan dauka-guna, eta zeinaren bizitza zertzeladak argitzen saiatzen ari garen nolarebait hemen.

Hirugarrena **Johannis de Lessaque** dugu, zeina izendatua izan zuen Baionako apezpiak Zaroko San Martin eta Eiheralarreko San Bizente elizetako erretore 1495eko maiatzaren 25ean<sup>20</sup>. Ohitura hau, alegia, Zaro eta Eiheralarreko elizak batera ezartzearena, Orreagako prioreak eskatuta Baionako apezpiku zen Raymon de Donzac (1233-1257) jaunarekin hasi zela. Badakigu ere Orreagako monastegi bat etxe bat alokatu ziola Eiheralarren<sup>21</sup>.

Laugarrena **Johannis de Apatt**, Buzunarizko erretorea. Apatt etxea, noblea zen eta Buzunaritzeko jaunak errege laguntzen zuten zaldiz eta armez, eta honela Joanikot Apateko jauna, Vianako gazteluko alkate izendatu zuten 1507an. Testuan ageri denaz ez dakigu deusik.

Bosgarrenaz, hots, Orreagako priore zen **Fernando de Egues** buruz badakigu gehiago. Orreagako priore izan zela, alegia, 1500-1518/22 urte zail eta gerratsueta, azken honetan hil zelarik. Baino antza denez, besteek ohi zuten bezala, Nafarroako Gorteari jarraikitzentzitzaion. Lehenik Alejandro VI aitasainduak izendatu zuen bere osaba Juan de Egues priorearen koadjutore bezala 1492ko abenduaren 18an<sup>22</sup> eta gero osaba Juan hil zelarik bera izendatu zuten priore.

Laburzki bilduz hauek lirateke Bernat Etxepareren bizitzaren data zehatz zenbait:

1486 ing. Jaiotza Sarasketako Etxeparian

Ikasketak Iruñean ala Tolosan (Okzitania) ?

Lekuko Tristan d Ahaxe eta Marie d Uharten ezkontzan.

Bertrand Lehetez Zaro eta Eiheralarreko apez izendatzen du

Donibane Garaziko Bikario Jeneralda

Baionako *Statuta Synodalia*-ren idazketan parte hartzen du.

*Linguae Vasconum Primitiae* argitaratzen du Bordelen

1559 Donibane Garazin lekuko ageri da.

<sup>20</sup> ACR (Archivo de la Colegiata Roncesvalles), Faxo Francia, nº 34.

<sup>21</sup> Accensement d une maison située à St. Michel le Vieux par Ronceveaux à Jean de Lessaque, curé de Çaro (ADPA, G.212, 1508-1518, f. 84). Testigo Pedro de Mendicoaga, vicario general de San Juan de Pie del Puerto, 10-IX-1511.

<sup>22</sup> ACR, Pergamino nº 419.

## 5. BERNAT ETXEPARE JEAN BERGSONEN JARRAITZAILE

*Linguae Vasconum Primitiae* aipatu liburua honelaxe moldaturik dago. Lehnik portada bat Baionako 1543. urteko Misalaren<sup>23</sup> 126. folioan ageri den gurutze deunaren irudiaren antzekoarekin baina zehazten ez direlarik ez inprimatzailea, ez hiria ez eta urtea, baina emango direnak amaieran.

Hau Lehetori zuzendu eskaintza batez hitz lauz 31 lerro dituena, ondoren *Doctrina Christiana* bat dator eta hainbat poema erlijiosoz 595 bertsoleroaren, amodiozko hamar poema 403 bertsoleroaren, poema autobiografikoa 102 bertsoleroaren non bere kartzela garaia kontatzen duen, eta bukaeran bi kanta: *Contrapas* eta *Sautrela*, 40 eta 19 bertsoleroetakoak, euskararen ohoretan moldaturikoak. *Linguae Vasconum Primitiae*-n ageri diren erlijiozko bertsoei buruz Beñat Oiharçabalek eta Aurelia Arkotxak kontsideratzen dutenean<sup>24</sup> erasmismoaren eragina dutela eta espreski eta klarki erasmista direla ondoko bertsuok:

Eta hala çinhex beça nahi eztenac enganatu  
Apezeq ez apezpikuq ez etare aytasainduc  
Absolvatcen halacoaren eceyn bothereric eztu...

Aski eztabadagarri daiteke, zeren Iñaki Aldekoak aipatu duen Jean Gerson-en obran jada ageri baitira topiko bilakatu ziren perpausok (Aldekoa 2010: 44-2). Lan hau Frantziako apezpikuek beren sinodoetan gomendatu ohi zieten apaizei eta beren erritualetan txertatzen zituzten kateiximen eredu gisa. Garbi dago, beraz, Etxeparek aurkezten duen *Doctrina Christiana*-k Iñaki Aldekoak azpimarratu duen bezala, Jean Gerson-en *Opus tripartitum* delakoaren eragina nabarmena duela, erasmista baino areago gersonista dela.

Halaber, *Judicio Generala* poemako bertsoek besteen artean diotenean *Eta lurra icigarri oro iqharaturic / çuhamuyec dacartela odolezco ycerdi*, Erdi Aroan erabat zabaldu «Signa Iudicii» –aren tradizio luzeari darraikote Pedro Damiánek (+ 1072): *Signum decimi diei: Omnia ligna silvarum, et olea herbárum sanguineum fluent rorem;* Petrus Comestorreko (+1178): *Quinta, herbae et arbores dabunt rorem sanguineum;* eta Gonzalo de Berceok (1264 a.):

El quinto de los signos será de grant pavura,  
de yervas e de árbores e de toda verdura,  
como diz sant Jerónimo, manará sangre pura;  
los que no lo veyeran serán de grand ventura.

*(Los signos que aparecerán antes del Juicio<sup>25</sup>).*

<sup>23</sup> *Missale ad usum ecclesie cathedralis Baiocensis (sic) iussu ac authoritate R. Patris Dmi Stephani de Poncher eiusdem ecclesie episcopi diligenter emendatum auctum et recognitum. Cui recons accessit festorum mobilium atque noviliorum per aureum numerum facilis ac exacta supputatio. [Irudia] Impressum per Johannem Karbriand alias Duguelin sumptibus Reginaldi Chauldière iuratis universitatis Bibliopole. MDXLIII.*

<sup>24</sup> [www.basqueliterature.com](http://www.basqueliterature.com)

<sup>25</sup> <http://www.vallenajerilla.com/berceo/michelgarcia/introduccion-signos.htm>

### Amodiozko poemak eta Mossen Benat Etcheeparere cantuya

Hamar dira Etxeparek moldatu zituen amodiozko poemak honako titulu hauekin: I. Amorosen gaztigua; II. Emazten fabore; III. Ezkonduien koplak; IV. Amoros sekretugi dena; V. Amorosen partitzia; VI. Amoros jelosia; VII. Potaren galatzia; VIII. Amorez errekeritzia; IX. Amorosen disputa; eta X. Amore gorrazen despita.

Duela urte zenbait idatzi aitzin-solas batean honako nioen (Urkizu 1991)<sup>24</sup> alegia, Etxeparerentzako aztertuko bagenitu sakonki (oraino egiteke zegoena) ez leudekeela seguruen urrutti Gaztelako poetak, gaztelaniaren ezagutza eta eragina nabari baitzen zenbait poematan, hala nola Katalunya eta Probentzakoak, eta Lafonek idatzi argitaragabe artikulu batean, gero Aurelia Arkotxak 1996an plazaratuau, aipatzen zizkgula honakoak: Bernard de Ventadour, Peire de Corbiac, Peire Cardinal, Raimbaut de Vacqueiras, Berceo, Pedro de Luna, Sem Tob eta Talaverako artzipresteak. Baino poeta onei zail zaieila aukitzeara eraginik, isuriak barne kanaletatik iraganaraztean besteak irakurgaiak iturri ezezagun bilakatzen baitituzte.

Hona adibidez, Ausias March (Beniarjó, 1397 - Valencia, 1459) poeta catalanaren XVIII. kantuaren ahapaldi bat Baltasar de Romani delakoak itzulia gaztelaniara:

No hay mayor deleyte, y mas cumplido,  
Que imaginar la dama a quien se dieron  
Aquellos los deleyta de tal modo,  
Que a si y al mal olvidaran del todo<sup>26</sup>.

Zein *Emazten fabore*- beste harekin konpara daitekeen. Alegia, ondokoa dioenarekin bortizkiago eta zehatzago, Rabelaisek bezala emanet amodio koresuari egunorozko bizitzaren gordintasuna:

Munduyan ezta gauçaric hayn eder ez placentic  
Nola emaztia guiçonaren petic buluzcorriric,  
Besso viac çabalduric dago errendaturic,  
Guiçonorrec daguiela harçaz nahiduyenic.

Beraz, Aldekoak errepikatzen dituenean Arcocha eta Oyharçabalaren hitzak esanez amodiozko poemak artikulatzen direla *según diversas situaciones ficticias que forman parte de la casuística habitual*. Ohizko kasuak izan arren ez dute nahita nahiez fiktizioak, egiari ez dagozionak izan beharrik, zeren ez baitzaie egiantzekotasunik batere falta eta errealsismo handiko bainteritzaizkit.

Hain zuzen Jean Baptiste Orpustan berak dioskunean Oihenarten gaitzespena esplika daitekeela errenazimenduaren izpiritua eta artea gorrotatzen zuen

<sup>26</sup> Las obras del famosissimo filosofo y poeta Mossen Osias Marco, caballero valenciano de nacion catalan traduzidas por Baltasar de Romani y divididas en quatro canticas: es a saber. *Cantica de Amor, cantica moral, cantica de muerte y Cantica spiritual*. Dirigidas al excellentissimo señor el duque de Calabria. Valencia. Juan Navarro, 1539.

batena zelako, eta Rabelais eta Ronsarden kasuan bezala, *tout en exprimant l'épaisseur humaine du personnage qui éclate à chaque vers, ne fait que renforcer par l'expérience vécue, le poids de la leçon*, hots, bertso bakoitzean lehertzen eta ageri den gizatasunak ez duela egiten bizitako esperientziaren indarraz lezioaren pisua sakonago, biziago eta areagotzea baizik (Orpustan 1996:36)

Maiz errepikatu dugun bezala, ez zen XVI. mendea gerrari gabea izan, aldiz Frantzia eta Espania artean borroka ugari izan ziren. Hortxe dugu ere 1512an Nafarroako erresumaren konkista deitua Gaztela eta Aragoeko erregeek bultzatua. Ondorioz hainbat eta hainbat gerlari eta nola halako partea hartu zuenak bai alde batetik bai bestetik presondegia pairatu behar izan zuten, eta hau sufritzen zuena poeta bazen bere desgrazia eta egoera tamalgarria adierazi ohi zituen bertsotan, hala nola Clément Marot (1496-1544) poeta kortesauak Errege-ri eginiko poema.<sup>27</sup>

Pedro Esarte historilariari esker ere badakigu, nola Donibane Garazin zegoen Gonzalo Pizarrori Juan de Renak diudu battuek eman zizkion espioitzan zebiltzan ajenteei edo informatzaileei ordaintzeko, eta *en algunos casos, informantes de uno u otro bando fueron apresados*, alegia, bai bando bateko bai besteko informatzaileak presondegia pairatzea suertatu zitzaiela (Esarte 2001:262). Eta honekin loturik dateke ere Etxeparek bere bizitzaren poemaren azken ahalpaldiko lehen bi bertsolerro agian idatzi zituen ederrenetarikoak:

Libertatia nola vayta gaucetaco hobena  
Gathibu egoytia hala pena gaycena.

## 7. EUSKARAREN GORAZARRE

*LVP*-ren liburuko azken bi poema, hobe esan kantak, *Contrapas* eta *Sautrela* deituak *heuscar-a*-ren gorazarretan moldatuak daude. Lehena sei koplek osatzen dute Garaziko herriaren ohoretan moldatuak, bertako batek lortu baitzuen euskal lehen liburua inprima zedin besteetan mailara jasoz. Eta bigarrenak berriro dantzara dei eginez lau bertso hamasei silabako lerroz osaturiko laukotan moldatuak, - ia liburuko beste gehienak bezalaxe, hots, ohiko *mester de clerecia*-ko *cuaderna via* deituan eta sarrerako dedikatoriaren antzera Bernard Leheteri eskeintzen dio azken bertsoa:

*Desir hura conplitu du garacico naturac  
Eta haren adisquide oray bordelen denac  
Lehen imprimação heuscararen hura da  
Basco oro obligatu iagoitika hargana.*

Eta bukatzen da liburua latinez adierazitako desio eder batekin: DEBILE PINCIPIU MELIOR / FORTUNA SEQUATUR; eta Parlamentuko rejistroetarik ateratakoko (Archives de la Gironde B, 7,) frantses testu batez, De Pontac-ek

<sup>27</sup> «Epistre, Marot prisonnier escript au Roy pour sa delivrance», *Les œuvres de Clement Marot*. Lyon, M. Dolet 1538.

sinatura Bordelen 145eko apirilaren 30ean, non jakiten dugun *Linguae vasconum primitie* (sic) François Morpain-en moldiztegian argitara eman den. Honi buruz eta latinezko perpausaren nondik-norakoak aztertu ditu Francisco J. Oroz irakasleak 2008an, eta esaten nola Ovidioren hitzek izan zuten jarraitzailerik, hala nola Etxeparereren liburuan edota Italiako Sava herriko udaletxearen arkitrabeen, antzina Palazzo Baronale izandakoan, eta bukatzeko Francisque Michelen hitzak datozkigu burura, alegia, Etxepare jakintsu zela, egile greko-latinoak irakurriak zituela eta zerbait bederen gelditu zitzaiola (Michel 1837).

### Ondorioz

Hauxe esan genezake ziurtasun askiz, alegia, Erdi Aroa eta Errenazimenduko pentsamendu jaiduren artean dabilela Beñat Etxepare. *Doctrina Christiana*-ren aldetik Ertaroko bideari jarraiki, baina hizkuntzarekiko solasetan erabat errenazentista mugimenduari atxikia, hots, nazioen hizkuntzak moldiztegiratzeko joerakin bat, zeren hauek beren balio propioaren kontzientzia hartzen baitoaz, eta literatura klasikoek duten *thornuya* beren diziplina, armonia, orden eta beste kalitateei esker bereganatu egiten baitute.

## BIBLIOGRAFIA

- Aldekoa, I. (2010) «Bernard Etxepare: Doctrina Christiana y poesia amatoria», ASJU, Donostia-San Sebastián, Diputación Foral de Gipuzkoa, 1-40 orr.
- Arkotxa, A. (1996) «Un texte inédit de René Lafon et Gil Reicher sur le *Linguae Vasconum Primitiae* (1545)», *LAPURDUM, vol I*, Baiona, Faculté pluridisciplinaire de Bayonne, 87-115 orr.
- Breton, R. (1536), v. *Robert Britanni*
- Desdevises Du Désert (1889) *Don Carlos d'Aragon, Prince de Viane. Étude sur l'Espagne du nord au XV siècle*, Paris, A. Colin, 452-455 orr.
- Biarritz Lassus, J.-D. (1993) «Les maison nobles, infançonnnes autres de Sare et leurs occupantas», Jacques Antz et. Al, Sare, *Ekaina*, 179-211 orr.
- Doctrina Christiana que cualquier christiano es obligado a saber. Que se canta quyd nos por maor de Dios*. Medina del Campo. Francisco del Canto 1558.
- Dubarat, V. (Reed. 1892), *Études Historiques et Religieuses du diocèse de Bayonne*, Pau, Vignancour, 66-67 orr.
- Esarte, P. (2001) *Navarra, 1512-1530. Conquista, ocupación y sometimiento militar, civil y eclesiástico*, Iruña, Pamiela, 262 orr.
- Etxepare, B. (1545) *LINGUAES VASCONUM PRIMITIAE per Dominum Bernardum Dechepare Rectorem Sancti Michaelis veteris, Bordeaux, Fran̄ois Morpain . Accessible en: gallica.bnffr/ark:/.../btv1b8609513p.r=Linguae+Vasconum.langEN*
- Fardet, M. (2001) «Bayonne 28 août 1510 Bertrand de Lehét, évêque de Bayonne crée la paroisse d Halsou par séparation de celle de Larressore», *Revue d'Histoire de Bayonne du Pays Basque et du Bas-Adur*, n° 156, Bayonne, 81-92 orr.
- Febvre, L. & Martin, H-J. (1971) *L'apparition du livre*. E. Albin-Michel, Paris.

- Garibay, E. (?) (1596) *Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas*. Pamplona, Pedro Porralis de Amberes. Accesible en [www.euskaltzaindia.net/dok/iker\\_jagon\\_tegiak/24568.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/24568.pdf)
- Gaullieur, E. (1884) *Histoire du collège de Guyenne*, Bordeaux, 132 orr.
- Ibarra de, J. (1951) *Biografías de Ilustres Navarros del Siglo XVI*. Pamplona, Ed. Jesús García, 96-98 orr.
- Huarte J. M. (1926) «Los primitivos del euskera Dechapore y su tiempo», *Euskalerriaren alde*. Donostia, 271 zkia, 246-248 orr.
- Jimeno Jurío, J.M. (1997) *Navarra. Historia del euskera*. Txalaparta, Tafalla.
- Johannis de Boyssone antecessoris Tolosani et aliorum epistolae mutuae* (BM Toulouse, MS 834).
- Michel, F. (1857) *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*. Fermin Didot, Paris, 454.
- Miranda García F. & Ramirez Vaquero E. (1997) *Archivo de la Real Colegiata de Roncesvalles*, Pamplona, Gobierno de Navarra, Departamento de Educación y cultura.
- Orpustan, J.B. (1996) *Précis d histoire littéraire basque 1545-1590. Cinq siècles de littérature en euskara*, Baigorri, Izpegi.
- Oroz, F. J. (2008) «Linguae Vasconum Primitiae: ¿1545? Hurgando en una resolución del parlamento de Bourdeaux y en débile principium melior fortuna sequatur», *Jean Haritschelhar-i omenaldia, Iker*, 21, Bilbao, Euskaltzaindia, 431-473 orr.
- Pérez de Betolaza, J. (1596) *Doctrina Christiana en Romance y Basquence, hecha por mandato de Dn Pedro Manso, Obispo de Calahorra y de la Calçada y del Consejo del Rey nuestro Señor, para las tierras bascongadas de su obispado, reducida por el Doctor Betolaza a lenguaje más comun...* Bilbao, Pedro Col de Ybarra. Accesible en <http://www.vc.ehu.es/gordailua/doctrina.htm>.
- REICHER, G. (1957) «Le gran poète basque Bernard Dechepare: que sait-on de la vie de Bernard Dechepare?», *Gure Herria*, Baiona, 33-49 orr.
- Roberti Britanni attrebatusis Orationes quatuor*. Tolosae, apud Nicolaum Vieillardum, 1536.
- Salaberri, P. (2012) *Aingura eta sugea: originaltasuna eta dependentzia Leizarragaren idazlanetan*. Erröteta. Amorebieta.
- Sancho de Elso (1561) *Doctrina Christiana y Pasto espiritual del alma para los que tienen cargo de almas y para todos estados en castellano y vascuence*, Adrian de Anvers, Pamplona.
- Urquijo, J. (1907) «El proceso de Dechepare», *Revista Internacional de Estudios Vascos*. Vol. I, Donostia, 369-381 orr.
- Urkizu, P. (1991) *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak*, II, 1545-1900. Etor, Donostia.
- (1999) «Bernard Lehete, euskaldun Mezenas bat Bordelen XVI mendeau», *LAPURDUM*, Vol. IV: *Jean Haritschelharren omenaldia*, 107-114 orr.
- Weber, H. (1971) «Humanisme et Réforme», *Histoire littéraire de la France*. Vol. I: *Des origines à 1600*. Paris, Les éditions sociales, 375-425 orr.